

ETXEITA ABADE BARRIA

Etxeita'tar Jabi'k emon dau bere meza barria, aurtengo udabarrian, Igorreta'n.

Nor ete dogu mutil jakinzale adoretzu au, abadetzarako bidea artzeko?

Euskaldun bizkaitar zintzo bat. Igorreta'ko semea, Amatza baserrian jaiola, zazpi neba-arreben artean txikiena.

Amaika urte eukazala entzun eban jaunaren deia eta bokaziñotsu joan zan Gabiria'ko pasiotarren etxera 1962 urtean, beste larogei ta amalau mutikogaz batera.

Batzuk urte bat edo bi geroago iges egin eben, beste ainbatek ikasketak amaitu orduan eta zortzi baiño ez ziran eldu lekaide-barri edo nobizio aldira eta, bere ikas-urtekoak bi baiño ez, abadetzara.

Bere ikasketak, Gabiria'n, Euba'n, Irun'en, Gazteiz'en eta Deustu'ko Unibertsitatean egin ditu.

* * *

Urte bitan ekin dautso eziketa-lanari Euba'ko pasiotarren Ikastetxean eta bide batez parroko artzain, lanean ekin dau.

Ogei ta zortzi urte bete dituanean, pozez beterik emon dau abadetzarako oinkadea, jaungoikoaren izenean eta gizonen serbitziorako.

Eleiz-gizonak urritzen diarduen aldi onetan txalogarriago agertzen jaku abadetzera arte au.

* * *

Erriak eta erriko gaztediak txalotu eben abadetzera artea.

Igorreta'ko eleizea egun orretan erritarrez bete-beterik egoan eta asko barrura eziñik, atarian.

Mikel deunaren egunean baiño gizaldra aundiagoa batu ei zan.

* *

Gero, Etxeita'tar Jabi, abade eginda, Deustu'ra etorri jakun, geure aurrean, geure lagundian, mezea egiteko.

Beste zeregin bear-bearrekorik ez genduanok, pozik batu gintzazan beragaz batera koruan esker-oparia Jaunari eskintzeko. Koru-eleizkizun zintzo ta tolesbakoa izan zan. Ez zan izan liturji jantzi apaiñik, aundikerizko eleiz-araurik, berbaldi luze ta azperririk.

Berari biotzetik berez urteten eutsen berbaz egin ban berbaldia eta zergaitik abade izateko erabagia artu eban, zintzo esan euskun.

Bere irakasle-lana egiten Euba'ko ikastetxean pozik goala esan eban eta ango komundade-laguntasunean, neke naigabeetan, eragozpen eta ezbearretan eukala kitugarria ta ordaiña agertu euskun.

Abadetzagaz bere ikasleakazko lana beteagoa ta Jaungoikoarentzat atsegingarriago izango zala uste eban? ta abadetzak daukan erantzupide oneri obeto erantzuteko, Jesukristo'ren laguntza itxaroten eban.

* * *

Berak bere berbalditxo amaitu ebanean, beragaz nezea emoten egozanai ur barruak eskatzen ebana esateko eskatu eutsen.

Mezakide batzuk egin eben berba, labur eta biotzez.

Euretariko batek, 83 urteko Moga'ko seme batek, Sarrena'tar Erasmo'k, biotz-ikaraz beteriko berba oneik? san eutsazan:

«jesukristo'ren Odola deadarrez dago, mundu zaiialaren salbapenerako zeuk isuri dagizun».